

## URIBE KOSTAKO BERBALAGUN - GURASOLAGUN EGITASMOARI DAGOKION ZERBITZUA PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK.

### 1. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren xedea izango da Uribe Kostako Berbalagun-Gurasolagun egitasmoari dagokion zerbitzua kontratatzea. Hona hemen, zehazki, zerbitzuaren nondik norakoak:

### URIBE KOSTAN BERBALAGUN - GURASOLAGUN EGITASMOARI DAGOKION ZERBITZUA

#### 1. Zerbitzuaren oinarria:

Berbalagun - Gurasolagun programaren oinarria euskaraz berba egiteko ohitura duten lagunak, ohitura ez dutenekin elkartzea da. Euskarazko harreman atsegín baten bitartez hizketarako jario egokia lantzea, mintzatzeko ohitura txertatzea eta harreman sareak ehuntzea ditu xede.

\*Gurasolagunen definizioa: Familia artean euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta ohitura hori ez dutenak elkartzea da.

#### 2. Funtzionamendua:

Berbalagun-Gurasolagun egitasmoan parte hartzeko plaza-kopurua ez da mugatua izango. Hau da, interesa duten pertsona eta familia guztiek esku hartu ahal izango dute.

Enpresaren egitekoa parte hartzaileak lortzea, izen-emateak kudeatzea, taldeak eratzea: inkestak prestatzea, ebaluatzea, proposamena egitea eta taldeak osatzea izango da.

Era berean, egitasmoaren ekintza osagarriak eta kanpainaren esku orri eta kartelen diseinua, eta inprimatze eta banatzeari dagokion gastua enpresa esleipendunaren gain egongo da. Iragartzeko jarriko den publizitatean Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko, Bizkaiko Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako logotipoak agertuko dira. Honez gain, prentsa oharrek ere egingo dira komunikabideetan zabaltzeko.

Taldeetako partaide guztiek ardura bera izango dute; ez da emango irakasle-ikasleen harremana, kideen artekoa baizik.

Berbalagun taldeak gutxienez astean behin batuko dira. Horrez gain, urtean zehar hainbat ekintza osagarri antolatuko dira.

Gurasolagun taldeak gutxienez hilean behin batuko dira. Horrez gain, urtean zehar hainbat ekintza osagarri antolatuko dira.

Eskatzaileek ondorengo alderdiak garatuko dituen lan-programa aurkeztu beharko dute (zerbitzuaren helburuak, metodologia, programa, giza baliabideak, eta zerbitzuaren ebaluazioa):

### 3. Zerbitzuaren helburuak:

Helburu orokorrak:

- Lagun eta familia euskaldunak eskaintzea euskara ikasten ari direnei, ikasi dutenei edo hitz egiteko aukera gutxi dutenei.
- Euskaldun berriek, euskara komunikatzeko tresna dela ikustea eta ikasle aurreratuen prozesua aurreratzea.
- Ingurune euskaldunak sortzea, indartzea eta zabaltzea eta jendearen euskarazko harreman sarea hedatzea.

Uribe Kostako testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuta:

- Bertoko jarrera aldaketa euskararekiko.
- Euskara entzuteko eta erabiltzeko ohitura sustatzea.
- Euskaldun berriei ezagutzatik erabilerara pasatzeko baliabideak eskaintzea.
- Euskaldun osoak euskalduntze prozesuan integratzea.

### 4. Metodologia

Metodologia dinamikoa eta parte hartzailea izango da. Parte hartzaileen helburuekin bat datozen ekintza erakargarriak bilatuko dira, euskara modu gozagarrian erabiltzeko.

Talde lana sustatuko da.

Konfiantza giroan eta presiorik gabe, euskara eta euskal mundua ezagutzea izango da helburua.

### 5. Programa

Berbalagun-Gurasolagun egitasmoaren programazioa diseinatzerako orduan kontuan hartu beharko dira zerbitzuak dituen berriazko helburuak.

Programazioaren diseinua enpresa esleipendunaren betebeharra izango da. Hala ere, programazioa garatzerako orduan, enpresa esleipendunaren eta Uribe Kostako euskara zerbitzuaren arteko elkarlana ezinbestekoa izango da. Horretarako, hiru koordinazio-batzar egongo dira urtean zehar: hasieran (programazioa zehazteko), ekintzaren erdian (egon daitezkeen gabeziak zein hutsuneak zuzentzeko eta parte hartzaileen garapena baloratzeko) eta amaieran (balorazio-batzarra).

### 6. Iraupena

Kontratua sinatzen den hurrengo egunetik aurrera, urte beteko epea. Kontratu hau beste urte betez luzatzeko aukera dago.

## 7. Giza baliabideak

Lehenago esan bezala, talde bakoitzak ez du plaza kopuru mugaturik izango, baina gutxienez 4 pertsonak osatu beharko dute Berbalagun talde bakoitza, guraso taldeetan izan ezik. Azken kasu honetan, parte-hartzearen arabera taldeak sortuko dira.

Dinamizatzaileaz gain, egitasmo osoa koordinatuko duen arduraduna ere beharrezkoa izango da.

Lan-taldearen lan-hizkuntza euskara izango da, bai ekintzak koordinatu eta programatzerako orduan eta bai parte hartzaileekiko harremanetan.

Lan-taldearen profila ondorengoak izango da:

### Koordinatzailea

- EGA titulua edo baliokidea.

### Dinamizatzailea

- EGA titulua edo baliokidea.

Zerbitzua garatuko duten koordinatzaile eta dinamizatzailearen zereginak ondorengoak izango dira:

- Parte hartzaileak lortu, parte hartzaileen sailkapena egin eta taldeak eratu: inkestak prestatu, ebaluatu, proposamena egin eta taldeak osatu.
- Komunikazio lanaz arduratu: publizitatea, matrikulazio kanpainak...
- Programan zehaztutako ekintzak gauzatzea eta ekintza berriak proposatzea beharren arabera.
- Parte hartzaileekin harreman zuzenak izatea, proiektuari buruzko izan dezaketen zalantzak argitzeko asmoz...
- Aurreko urteetan egitasmoan parte hartu dutenei deitu eta egitasmoaren informazioa eman.
- Aisialdi ekintza osagarriak antolatu eta kudeatu.
- Antolaketa, funtzionamendu eta jarraipen-lanak egitea, koordinazio-zereginak burutuko dituen pertsonarekin batera.
- Programazioa zehaztea.
- Uribe Kostako Euskara teknikariekin batzartzea.
- Koordinazioa Euskara Zerbitzuarekin eta herriko eragileekin.
- Jarraipen-txostenak idaztea aldian-aldian, ekintzaren egoeraren berri emanez.

Dinamizatzailearen lan-ordutegia honakoa izango da:

Hilean behin talde bakoitzera bisita bat egin beharko du.

Dinamizatzaileak kudeatu beharko du bere denbora zerbitzuak eskatzen dizkion betebeharrak eta zereginak aurrera eramateko.

Uribe Kostako Mankomunitateak ez du gutxienerako eta gehieneko ordurik finkatuko. Lan hau bere lanpostutik egin ahal izango du dinamizatzaileak.

Koordinatzailea:

Koordinatzaileak kudeatu beharko du bere denbora koordinazio-zereginak aurrera eramateko. Uribe Kostako Mankomunitateak ez du gutxienerako eta gehieneko ordurik finkatuko. Lan hau bere lanpostutik egin ahal izango du koordinatzaileak eta Uribe Kostako bulegora etorri behar izango du antolaketa eta koordinazio-batzarretan parte hartzeko bakarrik.

#### 8. Zerbitzuaren ebaluazioa

Ebaluazioari dagokionez, enpresa esleipendunak ondorengo txostenak aurkeztu beharko dizkio Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikariei:

- Hiru hilez behingo ebaluazio-txostena.
- Amaierako memoria.

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak ikuskatu ahal izango ditu zerbitzuari lotutako ekintzak. Horrez gain, egiaztatu ahal izango du enpresa esleipendunak betetzen dituela Baldintza-agiri hauetan ezarritako baldintza tekniko guztiak.

## 2. KONTRATUAREN-ZENBATEKOA

Kontratuaren prezioa, gehienez, 29.000,00 eurokoa izango da urte baterako. Kopuru hau beherantz hobetu ahal izango du enpresa eskatzaileak. Prezio horren barnean kontzeptu guztiak daude: Balio Erantsiaren gaineko Zerga, enpresa-etekina, gastu orokorrak, etab.

## 3. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratua sinatzen den hurrengo egunetik aurrera, urte beteko epea. Kontratu hau beste urte betez luzatzeko aukera dago.

**Diligentzia:** Adierazteko Uribe Kosta Zerbitzuko Mankomunitateko Gobernu Batzordeak, 2015eko urtarrilaren 28an egindako bileran, honako baldintza teknikoen plegua onartu zituela.

Behin-Behineko Idazkari-Kontuhartzailea

